

## **6-Bezereekin harremana:**

Gure enpresaren helburua da kotxen elektrikoen suteak sahiestea, eta hori da bezereei transmititu nahi dioguna, bezeroa bide osoan laguntzea. Horregatik, prozesu hurbila diseinatu dugu:

### **1. Erosketa aurreko konfiantza: Informatu eta probatu**

Ezer baino lehen, gure sistemaren funtzionamendua ondo ulertzea nahi dugu. Ez dugu promesarik saltzen, datu errealak baizik:

Erakustaldiak: Proben bideoak erakutsiko dizkizugu, gure sistemak muturreko egoeretan nola erantzuten duen ikus dezazun.

Proba-autoa: Zure kabuz egiaztatu ahal izango duzu ibilgailuaren erosotasuna eta estetika ez direla aldatzen. Zure zalantza guztiak aurrez aurre argituko ditugu, erabakia lasaitasun osoz har dezazun.

### **2. Instalazio prozesua: Zuretzat erraza, guretzat lehentasuna**

Behin pausoa ematea erabakita, gure taldeak papaleo administratibo eta tekniko guztia kudeatuko du. Dena arinagoa izan dadin, zu ezertaz kezkatu ez zaitez.

Gainera, zure martxa ez gelditzeko, zerbitzu eskusiboak aktibatuko ditugu autoa tailerrean dagoen bitartean:

Ordezko ibilgailua: Zure beharretara egokitzen den auto bat utziko dizugu.

Doako taxi zerbitzua: Autoa utzi edo jasotzera etortzean, taxi zerbitzua gure kontu izango duzu.

### **3. Erosketa ondorengoa: Bermea eta jarraipena**

Gure harremana ez da instalazioarekin amaitzen. Gure sistemak berme osoa du, eta denbora batera zurekin harremanetan jarriko gara formulario baten bidez, dena nola doan jakiteko. Akatsen bat egongo balitz edo zerbaitekin ados ez bazeude, gure gain hartzen dugu konponketa edo aldaketa osoa.

Gure helburua da gure tailerretik ateratzean seguru sentitzea, zure eguneroko bizitza ez dela aldatu jakinda, baina zure segurtasuna maila gorenera igo dela ziurtatuta.

